

*Eusko Legebiltzarraren eratzeko Bilkura*

*Bakartxo Tejeria*

*2016-10-21*

Eusko Legebiltzarraren hamaikagarren Legealdia zabaltzen dugu hemen. Hogeita hamasei urte pasa dira Eusko Legebiltzarrak bere ibilbidea hasi zuenetik eta bitarte honetan Herri honek eraldaketa handia egin du. Egungo Euskadik antza gutxi du diktadurak lur jota utzi zuen harekin; indarkeriak urteko ehun eraildako eragiten zituzten garai haiekin; zer ikusi gutxi du autogobernua eratu aurreko Euskadi desegituratu harekin. Bide luzea egin dugu eta orain erronkak burutzeko garaia dugu.

Azken urtetan bizi izan dugun krisi sakonetik sendotuta atera behar dugu, arlo ekonomikoan. Gure egitura produktiboa indartu eta horretan oinarrituta, globalizatua den mundu honetan, lehiakorragoak behar dugu izan eta hori kalitatezko enplegua sortuz egin behar dugu.

Eta ekonomiaren berrindartzea bezain inportantea da guztion artean eraiki dugun gure gizarte ongizate sistemaren sendotzea. Euskal herritarrak solidarioak gara eta solidarioak izan nahi dugu. Hurrengo belaunaldiei justizia sozialean eraikitako gizartea uztea zor diegu.

Bakea eta bizikidetzak indartu behar ditugu. ETaren indarkeriaren amaierak itxaropenerako aro berri bat zabaldu du. *"Etorkizuneko bake eta bizikidetzak eskatzen dute indarkeriaren bidegabekeria aitortzea, egindako mina eta biktimen duintasuna onartzea, biktima guztiek merezi baitute egia, justizia eta erreparaziorako eskubidea". "Giza duintasunaren, pertsonaren eta duintasun hartatik eratortzen diren giza eskubideen errespetua -eta lehenengo eta behin bizitzaren errespetua- beste edozein kausa edo ideia politikoren edo estatu-arrazoaren gainetik eta aurretik dago"*. Guztiok onartu ditugun eta partekatzen ditugun printzipio hauen gainean oinarritu behar dugu adostasuna, urtetan hainbat lagunek eta Herri honek pairatu duen biolentzia inoiz berriro errepika ez dadin bermatzeko.

Gernikako Estatutua onartu genuenetik ia lau hamarkada pasa diren honetan, euskal herritarron borondate politikoa eguneratu beharra dugu. Estatus juridiko-politiko berria behar dugu, herri honetako gizon-emakumeen nahien eta beharrei egokitua. Bide horretan, joan den legealdian Legebiltzarrean hasi genituen lanei aurrerabide eta buru eman behar diegu, euskal herritarron borondate libre eta demokratikoa muga bakarra izanik.

Hauek dira eginbeharrak eta erronkak. Eta horiei egoki erantzuteko, adostasunak landu beharko ditugu, hitza eta elkarrizketa jorratu. Hitza akordiorako bide, herritarron beharren zerbitzura jarria, aukeratu gaituzten pertsonen gogo eta nahiei erantzuteko. Helburu horrekin, Legebiltzarreko presidentziatik bultzatu eta landuko ditut adostasunak, eskusiorik gabeko eta errespetuzko hizketan oinarrituta. Akordioak eragin taldeen artean Legebiltzarrean eta halaber erakundeekin eta gizarte eragileekin.

75 legebiltzarkideek osatzen dugu Ganbara hau; batzuk lehen legealdia duzue, beste batzuk lehenagotik gatoz; gizon eta emakumeak, zaharrak eta gazteak. Guztiok gara legebiltzarkide, gutako bakoitza beharrezkoa da Legebiltzarrean, herritarrak demokratikoki aukeratu gaituztelako eta hemen eta horretan datzalako herri-subiranotasuna. Ohore honi zor zaion erantzukizunez erantzun behar diegu. Ordezkatzen dugun dibertsitate eta aniztasunetik abiatuta, elkarganutzen gaituena identifikatzen jakin beharko dugu, esku artean ditugun erronkei aurre egiteko Herri honen eta hau osatzen dugun gizon-emakumeen ongizatea lehenetsita. Horrela eginda, emango diogu politikari zor zaion dignitatea eta errespetua.

Helburuak erdiesteko lana, esfortzua eta elkarlana beharrezkoak izango ditugu. Eta nik neuk, Eusko Legebiltzarreko presidentea naizenetik nire konpromisoa azaldu nahi dizuet elkarrekin eta guztion artean helburu horiek lantzeko eta egi bihurtzeko.

Legebiltzar burua bigarren aldiz aukeratu nauzuen une honetan nire esker ona azaldu nahi diet joan den legealdiko legebiltzarkide guztiei eta bakoitzari. Aipatu nahi ditut, bereziki, nirekin batera Mahaia osatu duten kideak: Juanjo, Blanca, Anton eta Iñigo. Eskerrak guztioi, zuen laguntasuna eta ulermenagatik.

Halaber, eskerrak eman nahi dizkiot nire alderdiari, niregan berriro jarri duen konfiantzagatik. Nire esker ona etxe honetako langile guztiei, laguntzaileei eta gure legebiltzar taldeari, guztiei, zuen lana eta eskaintzen didazuen laguntzagatik. Eta, jakina, esker berezia nire familiari; gurasoei, seme-alabei eta zuri Joannes beti nirekin izateagatik.

*Pleno de constitución del Parlamento Vasco*

*Bakartxo Tejeria*

*21-10-2016*

Inauguramos la undécima Legislatura. Han pasado treinta y seis años desde que este Parlamento Vasco iniciara su andadura y este país ha experimentado un gran cambio. La Euskadi de ahora está a años luz de la Euskadi en ruinas que dejó la Dictadura; está muy lejos de la Euskadi de los más de cien muertos al año por violencia de principios de los ochenta; difiere mucho de la Euskadi desestructurada previa a la puesta en marcha del autogobierno. Hemos hecho un largo camino y, ahora, debemos seguir abordando los grandes retos de país.

En el ámbito económico, tenemos que salir fortalecidos de la grave crisis que hemos padecido. Necesitamos cimentar nuestro tejido productivo para ser cada vez más competitivos en un mundo globalizado, y tenemos que hacerlo creando empleo de calidad.

Y tan importante como la reactivación económica es el fortalecimiento de nuestro sistema de bienestar social, el que, entre todas y todos, hemos construido. Las vascas y los vascos somos solidarios y queremos seguir siéndolo. Tenemos el deber y la obligación de dejar a las generaciones futuras una sociedad sustentada en la justicia social.

La consolidación de la paz y la convivencia. El cese definitivo de la violencia de ETA abrió un nuevo tiempo de esperanza. “La paz y la convivencia futura requieren el reconocimiento de la injusticia de la violencia, el reconocimiento del daño causado y de la dignidad de las víctimas, todas ellas merecedoras del derecho a la verdad, la justicia y la reparación”. “El valor del respeto a la dignidad humana, a la persona, y a los derechos humanos que de ella se derivan, la vida en primer lugar, es siempre superior y anterior a cualquier causa o idea política o a la razón de Estado”. Sobre esos ejes en los que todos convenimos, debemos acordar unas bases que garanticen que no se repitan ni la violencia ni el sufrimiento injusto que tantas personas y el propio Pueblo Vasco hemos padecido durante años.

Casi cuatro décadas después de la aprobación del Estatuto de Gernika, resulta un requisito actualizar la voluntad política de las vascas y los vascos. Necesitamos dotarnos de un nuevo estatus jurídico-político, el que las mujeres y los hombres de este pueblo requieren. Hay que avanzar y culminar los trabajos iniciados en este Parlamento la pasada legislatura, sin más límite que la voluntad de la ciudadanía vasca libre y democráticamente expresada.

Esos son los retos y los desafíos. Y para abordarlos, serán necesarios los acuerdos, la palabra, el diálogo. La palabra como instrumento al servicio del pueblo para alcanzar consensos que respondan a las necesidades y anhelos de todas aquellas personas que nos han elegido. Con ese fin, desde la presidencia del Parlamento Vasco, seguiré impulsando el acuerdo, a través del diálogo respetuoso y sin exclusiones. Acuerdo entre grupos parlamentarios y entre instituciones, incluyendo a los agentes sociales.

Hoy, constituimos esta Cámara 75 parlamentarios: algunas y algunos os estrenáis en el escaño, otros llevamos más de una legislatura en este Parlamento; mujeres y hombres; jóvenes y mayores. Todas y todos necesarios porque hemos sido elegidos democráticamente y somos los depositarios de la soberanía popular, un honor que debemos afrontar con responsabilidad. Desde la diversidad y la pluralidad que representamos, debemos ser capaces de identificar aquello que nos une para dar respuesta a todos esos retos, anteponiendo siempre el bienestar de este Pueblo y de las personas que lo integran. De esa forma contribuiremos a restituir a la política la dignidad y el respeto que debe tener.

Son grandes objetivos que requieren entrega, esfuerzo y colaboración. Y, como presidenta de esta Parlamento Vasco, reitero mi compromiso para, entre todas y todos, hacerlos realidad.

Así mismo, en este momento de mi reelección, deseo expresar mi sincero agradecimiento a cada una y cada uno de las y los parlamentarios que han integrado la Cámara durante la pasada legislatura. Quiero mencionar a mis compañeros de Mesa: a Juanjo, a Blanca, a Antón y a Iñigo. Gracias a todas y todos por vuestra colaboración y comprensión en distintos momentos.

También quiero agradecer a mi partido el que haya vuelto a confiar en mí, a los trabajadores de esta casa por su gran ayuda durante estos años, a mis colaboradores, y a mi grupo parlamentario por su apoyo constante. Y, por supuesto, a mi familia; a mis padres, a mis hijos y a ti, Joannes, por estar siempre a mi lado.